

30 URTE MIHIGINTZAN. EUSKARA ELKARTEEK EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN IZAN DUTEN ERAGINA: 1987-2017

Tesiaren egilea: Txerra Rodriguez Gomez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Politika eta administrazio zientzien saila

Tesi-zuzendaria: Jatxi Juaristi Larrinaga

Tesiaren laburpena:

80ko hamarkadaren amaieratik aurrera hasi ziren sortzen euskal herrietan euskara elkarteak (gaur egun arte irauten duen prozesuan). Orditik 100 herritik gora izan dira euskara elkarteak izan dutenak. Gutxi ikertu dira euskara elkarteak eta are gutxiago dira elkarte hauek mugimendu sozialen kariatara zabaldutako metodologia eta ikuspegiekin ikertu dituztenak.

Ikerketa-lan honek euskara elkarteek azken 30 urteotan lortu dituzten emaitzak aztertu gura izan ditu, batez ere euskararen biziberritzeari lotutako emaitzei erreparatuta; hau da, elkarte hauek zer ekarpen egin dioten euskararen biziberritzearen prozesuari, zertan asmatu duten, zertan ez duten eragiterik lortu, zertan ibili diren herren eta abar.

Hori guztia egin ahal izateko, elkarteen historia bildu behar izan dut, elkarteei batez ere eragin dieten oinarri filosofikoak batu, elkarteek euren buruei ezarritako helburuak zehaztu, elkarteak non eta zelan errotu diren ikusi, zeintzuk izan diren elkarteetan jardun duten pertsonak aztertu, elkarteek aukeratutako jardunbideak eta egindako ekintza nagusiak aletu eta abar. Izan ere, emaitzetara heldu ahal izateko, bide hori aurretik egitea beharrezkoa zen, oso gutxi ikertuta dagoelako zeharo poliedrikoa den fenomeno hau.

Itzulinguru horiek egin ostean, ikerketaren funtsa izan da aztertzea elkarteek zer lortu duten: zer neurritaraino lortu duten euskaldunon komunitatea trinkotzea, zer bidezidor eta dispositibo eraiki duten elkarte hauek euskararen erabilera sustatzeko, zer eragin edo influentzia lortu duten diskurtso eta pentsamendu aldetik jendartean euskararen garrantzia handitzeko eta abar.

Ikerketak berak hor eduki zezakeen amaiera. Baina ez. Ikerketa aktibistaren prozesuak akuilatuta, aurrera begira nondik nora jo beharko luketen elkarteek ere badakar lan honek. Proposamen horiek, noski, apalak dira, xumeak.

Ikerketa egiteko ahotsen polifonia aukeratu dut eta, horretarako, elkarteetan ibilitako edo elkarteak eurak ikertutako 40 pertsona baino gehiagoren testigantzak batu ditut. Hortaz, euskara elkarteetan biran ibilitako jendearen polifonia dakar lanak. Gainera, ikerketa egiteko, betaurreko aktibistak jantzi ditut, hanka bat akademian eta bestea mugimenduan kokatuz. Azken finean, ni neu ere banaiz euskara elkarteetan ibilitakoa eta prisma horretatik ere aztertu gura nuen elkarteek zer ekarpen egin dioten euskararen biziberritze-prozesu osoari.